

ESKOLA KIROLEAN

LEHENENGOZ IZENA EMATEA



1. URRATSA: ALTA EMATEA KIROLARIARI

1. Lehenengo, eskola-umearen aitak, amak edo legezko tutoreak alta eman behar dio kirolariari, web honetan: <http://www.bizkaia.eus/eskolakirola>
2. Datu hauek beharko ditu:
 - a) Izena eta abizenak.
 - b) Jaioteguna.
 - c) Bizi den udalerrria.
 - d) Ikastetxea.
3. Behin alta emanda, prestakuntzara zuzenduko da: **GURASOENTZAKO PRESTAKUNTZA.**

2. URRATSA: GURASOENTZAKO PRESTAKUNTZA EGITEA

1. **GURASOENTZAKO PRESTAKUNTZA**ra sartu.
2. 12 atal ditu, eta atalotan erraz-erraz azaltzen dira Bizkaiko Eskola Kirolaren oinarrizko alderdiak; bada, behin atal horiek ikusita, eskola-ume bakoitzaren aitak, amak edo legezko tutoreak diploma bat jasoko du, prestakuntza hori egiaztatzen duena.

3. URRATSA: JARDUERETAKO BATEAN IZENA EMATEA

1. Kirolariari ALTA emateko prozesua amaitu ondoren, nahi duzun beste jardueretan eman ahal izango du izena.
2. Horretarako, hauek aurkeztu behar dituzu:
 - a) Angazki digitala.
 - b) Erroldatze-ziurtagiria.
 - c) Eskola-umea ikasten ari den ikastetxearen ziurtagiria.
 - d) Kirolariaren aitak, amak edo tutoreak **GURASOENTZAKO PRESTAKUNTZA** egin duela egiaztatzen duen diploma.